

€konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

36. alea • 2011ko Abendua • Doako Alea • Bostgarren Urtea • Harpidetzak: 944213031 • Lege Gordailua: BI - 0371 - 08

Orain ere Interneten: www.ekonomiarenkz.eu // ekonomiarenkz.wordpress.com

ELKARRIZKETA



Blanca Lacunza
Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendaria

“Aurtengo abuztuan 14 EEE izan ziren guztira Arabako lurralde historikoan”

8. orrialdea



José Pedro González
La Naval Enpresa Batzordeko presidentea

“Jaurlaritzak baldintzak bete behar ditu akziodunen taldean sartu aurretik”

12. orrialdea

Krisialdiak kontsumitzaileen ohiturak aldatu ditu

Azaroaren 25ean erosketarik gabeko eguna ospatu zen, eta hainbat talde eta erakunde batu ziren kapitalismoaren kontra egiteko eta kontsumo arduratsua aldarrikatzeko. Era berean, Eusko Jaurlaritzak Kontsumobide Zerbitzua ireki berri du.



10-11. orrialdeak

Tabakoaren aurkako legeak osasun publikoari dirua aurreztu dio lehenengo urtean



la urte bat pasa da Euskadin tabakoaren aurkako legea indarrean sartu zenetik. Ondorioen gaineko iritziak askotarikoak dira;

kaltetuen ikuspuntuaren arabera, egoera hobetu egin da, eta beste batzuentzat, aldiz, txarrera egin du. Ostalariek lehe-

nengo hilabeteetan izandako galerak kalkulatu dituzte. Bizkaian, 2011ko lehenengo lauhilabete-koan, lokalen %73,30ek ga-

lerak izan ditu aurreko urtearekin alderatuz, krisialdi ekonomikoa ere kontuan hartuz.

13. orrialdea

EAE n 2.215 eskari jaso dira etxebizitzaren titulartasun osoa azalera-erabileraren eskuratzeko

Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2.215 eskari jaso ditu etxebizitzaren, lokalen eta eranskinen titulartasun osoa azalera-erabileraren eskuratzeko. Lurraldeka, 490 Araban izan dira, 940 Bizkaian eta 785 Gipuzkoan.

3. orrialdea



Hotel La Casona del Sella
Plaza de Venancio Pando 4, 33540 ARRIONDAS (ASTURIAS)

OFERTAS ESPECIALES

Fin de Semana Asturiano: Fin de semana en habitación Doble Superior con desayuno y detalle asturiano a un precio único.
Disfruta del Sella: Alojamiento + desayuno + Descenso del Sella
A caballo por el Oriente · Golf de calidad · Especial 4x3

Tfno: 985.84.01.71 · WEB: www.casonadelsella.com

Oferta especial Navidad
Estancia para dos personas del 26 al 30 de Diciembre, 4 noches en habitación doble standard por sólo 260€

Precios Válidos para estancia con entrada el 26 de Diciembre y salida el 30 de Diciembre de 2011.
IVA Incluido. Sujeto a disponibilidad de plazas de alojamiento.

LAGUNTZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

**KULTURA SAILAK
(KULTURA SAILA HIZKUNTZA
POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)
DIRUZ LAGUNDUTAKOIA**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ekintza honek Bizkaiko Foru
Aldundaiaren Kultura Sailaren
laguntza jaso du.



ELKARLANEAN:

ADITUAREN
IRITZIA**Michel Barnier**

Barne Merkatuko Europar
Batzordeko komisarioa

Kalifikazio agentzien
ikerketak

Standar & Poor's arrisku kalifikazio agentziak akatsa egin zuen joan den hilean; datuak ez ziren behar bezala helarazi eta Frantziak kalteak jasan zituen, ez zuen zorraren berria jasanez, hain zuzen ere. Horrek Europako burtsak behera bultzatu zituen; "oso gertakari larria" dela ziurtatu du Michel Barnier komisarioak. "Zor frantziarraren kalifikazioa gaizki helaraztea eta handik minutu gutxira emaitza aldatzea arriskutsua izan daiteke herrialdearen eta Europaren ekonomiarako".

Hori dela eta, Barnierrek gertatutakoa ikertuko du; "ez gaude ziur, agian ez da akats soila izan, errealitatea aztertu nahi dugu, eta helarazi duen bidea edo modua ere ikerketapean egongo da", dio komisarioak.

**Merkatuko aktoreen
garrantzia**

"Kalifikazio agentziak alerta sistema berezia du, eta, horren bidez, merkatuko aktore batzuek, ordaintzen dutenek, inork baino lehenago jakin ditzakete burtsaren mugimenduak", azaldu du Barnierrek. Komisarioak salatu du merkatuko aktore batzuek Estatuak edota beste edozein instituziok baino lehenago izatea Frantziaren balizko egoeraren berri.

KOMIKI



GORA

**Euskadiko bidaiarien sarrerak
%2 igo dira 2011ko urrian**

2011ko urrian 210.686 bidaiarik hartu dute ostatu EAEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 3.705 gehiagok; horrenbestez, %2ko gehikuntza izan da. Araban %8 igo da etorritako bidaiari kopurua eta Bizkaian %5; alabaina, Gipuzkoan %5 jaitsi da kopuru hori.

Bestalde, aurtengo urrian 399.677 ostatu-gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko urriarekin alderatuta ostatu-gaua igaro dutenen kopurua %0,3 gehitu da, guztira ia 1.107 ostatu-gau gehiago igaro baitituzte. Igarotako ostatu-gau kopuruak urte arteko bilakaera positiboa izan du Araban (%5eko igoera) eta Bizkaian (%1eko igoera); baina Gipuzkoan kopurua %3 jaitsi da.

Batez besteko egonaldia iraupenak behera egin du Euskadi osoan eta 2010eko urriaren aldean 1,93 eguneko egonaldia izan zen 2010eko urrian eta urte honetakoan 1,90 eguneko.

Nekazaritza turismoa


EAEko nekazaritza-turismoko establezimenduei dagokienez, 10.316 bidaiari erregistratu dira urrian; beraz, nekazaritza-turismoko establezimenduetan 2010eko urrian erregistratu zirenekin alderatuta %1 gutxiago etorri dira. Lurrealdean, Araban ez da aldaketarik izan, Bizkaian %12 egin du behera eta Gipuzkoan %5 igo da.

Plazen okupazio mailak %10 egin du behera, %20,93tik %18,81era igaro da okupazioa hain zuzen ere.

STAFF:

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
WEBGUNA: www.ekonomiarenkz.eu
BLOGA: ekonomiarenkz.wordpress.com
POSTA ELEKTRONIKOA: info@ekonomiarenkz.eu
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo
EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikastegia
EGILEA: Leizaola Elkargoa - Mediagune
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoan.
Aldizkari hau **USOA LANTEGIA** eta **EGUNON**
POSTING ZERBITZU PROFESIONALA banatu dute

Banaketa:

**Egin zaitez harpide!**

Ekonomiaren KZ etxean hilerdoan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupoia honako helbidera:

• 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbo,
edo idatz ezazu info@ekonomiarenkz.eu posta helbidera, zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.

ABIZENAK: _____ IZENA: _____

HELBIDEA: _____

TELEFONOA: _____ E-MAIL: _____

HERRIA: _____ P.K.: _____

BEHERA

**Volkswagenek Landabengo
700 langile kaleratuko ditu**

Nafarroako Volkswagen enpresako zuzendaritzak aldi baterako kontratuarekin dauden 700 langileri kaleratuko ditu abenduaren 12an. Erabakia hartu du lan karga gutxitu delako, "aurten 2.300 auto gutxiago ekoizteko aurreikuspena dugu", azaldu du enpresako zuzendaritzak.

Volkswagen-ek ekoizpena handitu beharko zuen ustean hartu zituen langileak soberan ditu. Hain zuzen, irailean 150 bat bota zituen; urrian, 260 inguru; eta abenduaren 12an beste 700 kaleratuko dituela ezagutzera eman du. Guztiek obra edo zerbitzuko kontratuak dituzte.

Langile batzordea

Txetxu Rodriguez langile batzordeko CCOOko ordezkariaren arabera, "berria ezin txarragoa da". Aldi baterako 700 langile kaleratzeak eta ekoizpena murrizteak egoera kezkarria dela esan du, baina "okerrena da ez dakigula datorren urtean zer gerta daitekeen, aurreikuspenak egitea ezinezko bihurtu delako", gaineratu du Rodriguezek.

Bestalde, LABeko ordezkaria, Benito Uterga, adierazi du ez duela uste erabakiaren atzean enpresa estrategia bat dagoenik, "estrategia politikoa baizik".

Ildo berean, Yolanda Barcina Nafarroako gobernuburuak langileekin zer egin erabakitze arduraren enpresari dela argitu du, "Gobernuak ezer gutxi egin dezake horretan", esan du Barcinak.



Kaleratutako langileak obra edo zerbitzuko kontratuak dituzte

ALBISTEAK

Jaurlaritzak 2.215 eskari jaso ditu etxebizitza arloan

Etxebizitza Sailak 2.215 eskari jaso ditu etxebizitzetan, lokalen eta eranskinen titulartasun osoa azalera eskubidean eskuratzeko. Lurraldeka, 490 izan dira Araban, 940 Bizkaian eta 785 Gipuzkoan. Jabeen %33,86k aurkeztu du eskaria lurzoruen jabetza eskuratzeko.

Aurkeztu diren eskarietatik, 1.834 dira baldintza guztiak betetzen dituztenak eta Sailak onartu dituenak. 20 milioi euro inguru bilduko ditu horrela Gobernuak, eta babestutako alokairua sustatzeko bideratuko ditu.

Aurreikuspenak

Sailaren aurreikuspenak gaintu egin dira, izan ere, bai lehenengo eragiketak eta bai bigarrenak oso harrera ona izan dute babestutako etxebizitzaren jabeen aldetik, eta are gehiago egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta.

Lurzorua erosi dutenek euren etxebizitzaren edo eranskinaren jabetza osoa eskuratu dute. Horrela, 75 urte igarota ez diote Administrazioari eraikina itzuli beharko eta eraikina ez da apurka-apurka ba-



Gobernuak alokairuaren sustapena bultzatzen du

lia galtzen joango erosi zeneko 75 urteak hurbiltzen joan ahala.

Aurkeztu diren eskarietatik, 1.834 baldintza guztiak betetzen dituzte

Lurzoruen balioa zehazteko, eraikinaren balio osoa kalkulatu da, eta gero zenbateko horri %10 gehitu zaio, lurzoruen eragin-balioa dela-eta. Ordaindu beharreko azken prezioa jabetza horizontalen partaidetza-kuoten arabera esleitu da, eta kuartari BEZa gehitu zaio.

Bizkaiko Aldundiak helburu estrategikoa ezarri du enplegua suspertzeko

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak enplegua sortzeari eta finkatzeari emango dio lehentasuna 2011-2015 legegintzaldian. Imanol Pradales diputatuak jarduteko bost ardatz estrategikoren bidez jarri nahi du martxan helburu hori, enpresak bultzatzea, ETEei bultzada berria ematea, gazteak laneratzea eta autonomoei laguntzea, azpiegiturak sustatzea eta turismoaren industria bultzatzea.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren ustez enplegua berreskuratzeari eta finkatzeari lehentasun osoa emango zaio 2011-2015 legegintzaldi berri honetan.

Enpresen sorrera eta lehiakortasuna

Lehenengo ardatz estrategikoa empresa berrien sustapena da. Garrantzi berezia emango zaie kultura ekintzailea sustatzeari eta enpresa-proiektuak gartzeari, besteak beste.

Lehiakortasunari begira, ETEak berrabiarazteko plana eratu dute BFA, plan honek funtsezko hiru ardatz izango ditu: berri-



Imanol Pradales, BFAko Ekonomia Sustatzeko Saileko diputatua

kuntza, nazioartekotzea eta inbertsioa.

Gazteak eta autonomoak

Hirugarren ardatz estrategikoa enplegarritasuna da, non gazteak laneratzea eta autonomoei laguntzea erdigunea izango dira.

Bestalde, legegintzaldi berrian dinamizazioari ere garrantzia emango zaio, azpiegitura ekonomiko, teknologiko eta sozialen sustapenarekin batera.

Azkenik, erakargarritasunari dagokionez, kanpo-

rako sustapena eta turismoaren industria aztertu-

“Enplegua berreskuratzeari lehentasun osoa emango zaio” dio Pradalesek

ko da, baita kanporako bultzada azpimarratuz.

Lunch
Bodas
Comuniones
Presentaciones
Eventos

El mejor sabor de boca para tus invitados
Un toque especial para tu boda

¡¡AHORA TAMBIÉN EN TU PROPIO TXOKO!!

Servicio completo (carpas, recintos especiales)
Amplia carta de especialidades
Para empresas, particulares y hosteleria

Tel. 94.402.32.54,
ereaga@ereagacatering.com,
www.ereagacatering.com

Presupuestos sin compromiso
Aportamos soluciones
Posibilidad de financiación sin coste

PRESELECCIÓN (ELEGIR UNO)
Paseo de gansos y Torro
Escudero de queso y de Espinacas
Ensalada de jamón y Perce

SEGUNDA (ELEGIR DOS)
Langostinos a la crema
Carpas de puerros y queso con crema de Ajoblanco y Tomate
Bifido de pollo rebozado con alcaparras y queso de carne

POSTRES (ELEGIR UNO)
Tarta San Marcos
Torta de queso y fiambrera

BEBIDAS
Vino Tinto Crianza
Blanco Verdejo
Cerveza, agua

Precio por persona: 35€

Presupuesto Menu A - Torno / Sociedad

ALBISTEAK

Arabako Aldundiak gastu propioa jaitsiko



Jose Zurita Arabako Ogasun diputatua aurkeztu berriaren aurkezpenean

Arabako Foru Aldundiaren gastu propioa %16 jaitsiko da hurrengo urtean. Guztira, 437 milioi euro kudeatuko ditu zuzenean foru gobernua, 2011n baino 87 milioi gehiago. Arabako sozietate publikoak aintzat hartuz gero, jaitsiera are handiagoa da, %22koa hain zuzen ere.

Gauzak horrela, Jose Zurita Arabako Ogasun diputatua 2012ko aurkeztu proiektua aurkeztu du, eta udako oporren ostean adierazi zuen moduan "gerra ekonomiko" ezarri behar izan du.

Hiru ardatz

Hain zuzen, hiru arazori aurre egin behar izan dizkio PPK gidatutako foru gobernua. Alde batetik, 2012an zerga bidez bildutako diru sarrerak %6 eroriko dira, eta horrek orain dela bost urte zituenen pare utziko ditu. Bestetik, bi auzi fiskalen ondorioei aurre egin beharko die datorren urtetik aurrera, Rover auziko epaiaren dirua itzuli behar dio Espainiako ogasunari, eta berreskuratu dituen opor fiskaletatik dagokion parte ordaindu behar dio Eusko Jaurlaritzari.

Legealdi batetik bestera AFAn aldatu ez diren sailetan jaitsiera aipagarriak eman dira; adibidez, nekazaritzan %46ko beharakada, herrilan publikoetan %35, eta euska-

ra, kultura eta kirol arloan %29ko jaitsiera.

Zorraren hazkundera

Aurkeztu propioa orekatzeko asmoz, aurtan baino zor gutxiago eskatzeko asmoa du foru gobernua. Izan ere, aparteko zorpetzeari heldu beharko dio opor fiskaletatik Jaurlaritzari dagokion dirua ordaintzeko.

2012an foru gobernua aurtan baino 87 milioi euro gehiago kudeatuko ditu

Faktura guztia, 54 milioi euro, estaltzeko adina zorra jaulkitzeko baimena eskatuko die Biltzar Nagusiei, baina 2012an dena ordaindu behar ez izateko akordioa dute bi administrazioek. Azken negoziazioen arabera, 18 milioi inguru heldu den urtean ordainduko lituzke.

Hortaz, Arabak 435 milioiko zor bizia du. Elkarte publikoak gehituta, 619 milioi euro dira; interesak ordaintzera 39 milioi bideratuko ditu aldundiak datorren urtean.

Gobernu zentralak etxeko langileen soldataren araudia aldatu du

Ministroen Kontseiluak etxeko langileen soldata 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko Errege Dekretua onartu du. Besteak beste, urteko lanbidearteko gutxieneko soldata dirutan jasotzeko bermea izango dute, aurtan 8.979,60 eurokoa dela.

Halaber, aparteko bi ordainsari izango dituzte urtero, hileko soldataren parekoak.

Valeriano Gomez Lan ministroak Ministroen Kontseiluaren ostean jakinarazi duenez, "aldaketa horrek 150.000 lanpostu ekarriko ditu", gaineratu du Gomezek, Gaur egun 300.000 pertsona daude afiliaturik kotizazio talde horretan.

Araudi berria

Dekretuaren puntu nagusiak jada ezagutzera eman dira, etxeko langileen baldintza berriak 2012ko urtarrilean indarrean jarriko baitira.

Hitzarmen edo konbenio horretan sartuko diren

langileek ezin izango dituzte 40 orduko lanaldia baino gehiago izango, eta asteko 40 orduak eginda, langilea ez da etxean egotera behartuta egongo.

Langileak bi soldata extra jasoko ditu urtean eta horren zenbatekoa gutxienez soldata minimoa izan beharko da. Langileak zuzenean, enplegu zerbitzu publikoen bitartez edo baimendutako agentzien bidez kontratatuko dira. Hemendik aurrera probaldi bat ezarri ahal izango da, baina ezin izango da bi hilabete baino gehiago luzatu.

Barne langileak

Bestalde, etxeko langileen soldatetik gehienez %30 kendu ahal izango da alojamenduagatik edo otorduak emateagatik. Dena dela, lan egun baten eta hurrengoaren artean gutxienez 12 orduko atsedena egongo da, baina barne langileen kasuan, hamar ordura murriztu daiteke.

Horren harira, barne langileek gutxienez bi

ordu izango dituzten egunero otordu nagusiak egiteko, eta ordu horiek lanordua gisara zenbatuko dira.

"Araudiaren aldaketak 150.000 lanpostu ekarriko ditu", dio Valeriano Gomezek

Oporrei dagokienez, 30 egun natural hartzeko aukera izango dute etxeko langile guztiek, eta gutxienez 15 jarraian hartu behar dituzte, zatika ere posiblea da. Kontratuak eteteko kalte-ordaina lan egindako ure bakoitzeko 20 eguneko izango da bidegabeko kaleratzeen kasuan eta 12 eguneko enplegatzaileak atzera egiten duenean.



Orain arte etxeko langileen egoera arautzen zuen legea 1985ekoa zen

ALBISTEAK

Gureak Taldeak MerkaOn sortu du, Gipuzkoako aurrezki klub berria



Gureak taldeak eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak MerkaOn sortu dute, kontsumitzaileen eta merkatarien kluba izango dena. Ekimen honi esker, gipuzkoarrek, erosketetan izango dituzten deskontuak ez ezik, hutsune sozial garrantzitsua ere beteko dute. Hau da, hoguei lanpostu sor-

tuko dira edozein urritasun mota duten biztanleei bideratuta, Gureak taldekoak, hain zuzen ere.

Talde horren baitan dauden enpresek (aurreikuspenen arabera, epe laburrean 4.000 izango dira) galdetegi berezia egingo dute, kontsumitzaileek bete beharko dutena, eta, horri esker,

hainbat produktutan deskontuak izango dituzte.

Orain arte egin diren kontsumo familiarraren inguruko ikerketen arabera, erosleek, MerkaOn-en eskaintzen diren beharapenei esker, urtero mila euro aurreztuko dituzte.

Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren laguntza

Iñaki Alkortak, Gureak taldeko presidentea, baikor agertu du bere burua; "ekimen berria jaio da, eta, berari esker, ezaugarri zehatz batzuk dituzten pertsonen enplegua izaten lagunduko zaie, betiere, Ganberaren kolaborazioarekin".

Horren harira, Gipuzkoako Merkataritza Ganbe-

rako Berrikuntza eta Ezagutza Saileko zuzendari Ana Ugaldek azaldu du, beraien laguntzari esker, "enpresa ertain eta txiki asko merkaOn egitasmoaren barne izango direla, IKTak lurraldean txertatzeko helburuarekin eta enplegu berriak sortzea xedea izanik".

Online zerbitzua

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari Lore Martinez Axpek gaineratu du "merkaOn plataformak Gipuzkoa gozatzeko eta ezagutzeko" erramintak eskaintzen dituela; "lurralde historikoan negozioa sortzeko eta enpresa berriak irekitzeko aukera zabaldu-

ko du, eta merkaOn Gipuzkoako erakusleho digital bihurtuko da, enpresa txikien presentziak garrantzia hartuko baitu Interneten", esan du Martinez Axpek.

Hogei lanpostu sortuko dira Gureak Taldean

Hori dela eta, merkatariek eskura izango dute aukera digitala, online zerbitzua eskaintzeko (erosketak, aholkuak, eskaintzen iragarpena...) edo marketin multikanala txertatzeko.

agua viva
Posada-Spa

DIRECCIÓN: ALTO DE LA CRUZ nº6 - 39700 - CASTRO URDIALES
TELÉFONO: 942 862 238 WEB: WWW.AGUAVIVAPOSADASPA.COM


EL SPA AGUAVIVA
ES NUESTRO TEMPLO DE RELAJACIÓN. En él se fusionan EL AGUA, LA MÚSICA, LOS AROMAS, LAS PLANTAS consiguiendo LA COMBINACIÓN MÁS BENEFICIOSA PARA EL CUERPO Y EL ALMA.

Servicios

- CAFETERÍA - 7 HABITACIONES
- SPA - BIBLIOTECA - BOUTIQUE
- SALÓN DE ACTIVIDADES - PRENSA
- TERRAZAS AJARDINADAS
- FACILIDADES PARA MINUSVÁLIDOS
- BARBACOA / HORNO DE LEÑA

HILEKO GRAFIKOAK

EAEko BPGk urte arteko %0,6ko hazkundera izan du 2011ko hirugarren hiruhilekoan




Euskal Autonomia Erkidegoko BPG %0,6 hazi da 2011ko hirugarren hiruhilekoan, 2010eko tarte berdinarekin alderatuz gero, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko hiruhilekoan izandako hazkunderarekin erkatuz gero, tasa positibo hau bi hamarren baxuagoa da.

Espainiako ekonomiari dagokionez, datu hau %0,8koa izan da, EINEk argitara emandako alde aurretiko zenbatespenaren arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Euskal Aeko BPGk hazkundera izan du; aurreko hiruhilekoan, ordea, %0,2ko hazkundera gertatu zen. Hiruhileko arteko aldaketa berdina erregistratu du Espainiako ekonomiak ere.

Iturria: Eustat

Euskadiko eraikuntzaren sektoreko kostuek ez dute aldaketarik izan urrian




EAEen eraikuntzako kostuen indizeak ez du aldaketarik izan 2011ko urrian, aurreko hilabetearen aldean; baina hilabete horretako urte arteko tasa %2,0 igo da. Era berean, aurreko hilabetearekin alderatuta, 2011ko urrian eskulanaren kostuak eta lehengaien kostuak ez dute aldaketarik izan.

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreetako lehengaien kostuek antzeko bilakaera izan dute urrian, eraikuntzako kostuek ez dute aldaketarik izan; obra zibilean kontsumitu diren lehengaien kostuak %0,1 egin du behera, aurreko hilabetearekin erkatuta. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera aztertuta ikusten da eraikuntzako lehengaien kostuek %1,5 egin dutela gora, eta obra zibileko kostuek ere gora egin dutela, %4,9.

Iturria: Eustat

Euskal Aeko Industria Prezioen Indizearen abenduko urte arteko tasak. Behin-behineko datuak



[*] 2011ko urria urte arteko hazkundera
Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko industria prezioen indizea (IPRI)


2011ko urrian industriako prezioek %0,1 egin dute gora

Euskadiko industriako prezioek %0,1 egin dute gora 2011ko urrian, aurreko hilabetearen aldean. Datu horien arabera, azken hamabi hilabeteetako industriako prezioen aldaketa jaso duen urriko urte arteko tasak %7ko hazkundera izan du.

Sektore-azterketa xehekatuenak erakutsi bezala, 2011ko urrian, eta aurreko hilabetearen aldean, "Energia elektrikoa, gasa eta lurruna" (%0,5) adarrak izan du inflaziorik handiena. Prezioetan beherakada handiena izan duen adarra, aldiz, honakoa izan da, "Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak" (%0,4).

Iturria: Eustat

1. Grafikoa. 65 urteko eta gehiagoko pertsonen portzentajea, udalerrria



Euskadi adinekoen proportzio handiena du Estatuko autonomia-erkidegoen artean

EAEk %2 puntu baino gehiagorekin gaintzen zuen Espainiako 64 urtetik gorakoen proportzioa. Europarekin alderatuta, Alemaniak eta Italiak bakarrik zuten gurea baino proportzio altuagoa.

Guztira 113 udalerrik gaintu zuten Euskal Aeko batez besteko portzentajea; eta 138 udalerrik portzentaje bera edo txikiagoa zuten. Gaintu zutenen artean zeuden Bilbo, Donostia eta Barakaldo, erkidego osoko biztanleen ia % 30arekin.

65 urteko eta gehiagoko pertsona asko zituzten udalerririk gehienak Araban zeuden.

Iturria: Eustat

IK4k auto elektrikoentzako baterien inguruko proiektua koordinatuko du



Cidetec-ik4k zentro teknologikoak Greenlion proiektu europarra koordinatuko du, litio-ioizko bateria ekologikoak eta merkeagoak garatzeko. Europa buru izatea auto elektrikoentzako bateria jasangarrien industriaren alorrean xedea da.

Pixkanaka merkaturatzen ari diren bateriak dira kotxe elektrikoaren funtsezko elementuetako bat. Izan ere, energia metatzeko gailu horien arabera da, neurri handi batean, ibilgailu elektrikoaren autonomia; baita kostuen murrizketa eta ingurumenaren zaintza ere. Testuinguru horretan, litio-ioizko bateriak dira industrian etorkizun oparoa izan dezaketen aukeretako bat, energiaren metatzearen alderdiari dagokionez.

Greenlion proiektua azaroan abiarazi dute, eta lau urte barru amaituko

dute. Proiektuaren helburuen artean hurrengoak daude: eraginkortasun handiagoa, prezio baxuagoa eta, ingurumenari dagokionez, jasangarritasun handiagoa lortzea baterien ekoizpen-prozesuan, gela unitatetik azken produkturaino.

Teknologia eta instalazioa

Bestalde, Cegasa euskal enpresak aurrerapen teknologiko horiek guztiak Gasteizko instalazioetako baterien etorkizuneko ekoizpen-lerro batean txertatuko ditu.

Baterien moduluen diseinua eta ekoizpena hobetzea ere badute helburu. Izan ere, bateria horiek arinagoak izatea eta errazago desmuntatzeko modukoak izatea nahi dute, konpondu behar diren kasuetarako. Hobekuntza horrek osagaien birziklatzea erraztuko du.

Euskadiko 76 erakundek Innobasqueren lankidetzaren ekimenean parte hartu dute

“Minutu bat berrikuntzarako”, hori da Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziaren ekimen berriaren izena. Kausa honetan, helburua Euskadi osoko izaera eta tamaina desberdinetako 76 erakunde mobilizatzea da. Lankidetzaren berrikuntzako ekimen honek partaideek ekintzara bideratutako berrikuntza bat aktibatzen bultzatzen du epe laburreko emaitzatarako, metodologia sinple baten bitartez.

Proiektuaren aurkezpena Bilboko Erriberako Merkaturatu izan da eta parte hartzaileak hurrengoak izan dira: Maite Valmaseda,

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko zuzendari nagusia; Lurdes Arana, Zientzia eta Teknologiarako Espainiar Fundazioaren zuzendari nagusia; Oihane Agirregoitia, Bilboko Udaleko Osasuna eta Kontsumo Alorreko zinegotzi ordezkaria; Javier López, Bilbao Dendak-eko lehendakaria eta Guillermo Ulacia, Innobasqueko lehendakaria.

Lankidetzaren dinamika

Aurkezpenean izan diren partaideek eta bartaratuak, bertatik igarotzen ari zen jendeak bezala

idea berritzaile bat idatzi dute “post-it” batean, izenpetu eta berriaz ezarritako panel batean itsatsi dute. Ideia guztien artean bat hautatuko da ezarritako irizpide batzuen arabera eta hautatuko dena burutu egingo da eta sortu duen pertsona “Minutu bat berrikuntzarako” talde sustatzailearen parte izatera pasatuko da.

Metodoa lasterra eta sinplea da. Deialdi bat irekitzen da enpresak eta erakundeak ekimenarekin bat egin dezaten eta barne-topaketa bat sor dezaten erronka bat identifikatzetik abiatuta.



Bertatik igarotzen ari zen jendeak ideia berritzaile bat idatzi dute “post-it” batean

¿Tienes un vuelo temprano y no te apetece madrugar?



Hotel Holiday Inn Express Bilbao

Duerme en el hotel Holiday Inn Express Bilbao con traslado gratuito al aeropuerto y si lo necesitas deja tu coche 3 días por 20€.

Información y reservas:
T. 944 868 240
E. info@hiebilboa.es



ELKARRIZKETA

BLANCA LACUNZA

Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendaria



Blanca Lacunza Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendaria da; bere sailean, enpresa arabarrak sustatzeko ekimen, plan edo egitasmo ugari sortzen dituzte. Lacunzak, egitasmo horiek ez ezik, lurralde historikoaren egoera ekonomikoa eta lan-merkatuaren nondik norakoak ere aipatu eta azaldu ditu

“Aurten, 41 proiektuk nazioartekotasuna sustatzeko diru-laguntza jaso dute”

Egungo testuinguru ekonomikoa kontuan hartuz, nola egiten dio aurre AFAn egoerari?

Aldundiko diru-kutxan aurrekontuan sartzen denaren eta ingresatzen denaren arteko desberdintasuna nabaria da; batez ere ekitaldi honetan aldea handia izan dela esan dezakegu, hainbat erakundetan gertatu den bezala. Araban, ez dugu arazo hori bakarrik Aldundian izan, ehunka udal ere egoera berean egon baitira.



“Gasteiz Hiriburu Berdea izateak Araban ere eragina izango du”, dio Lacunzak

ETEEi dagokienez, horien kopurua murriztu egin da azken urteetan? Zeintzuk dira Aldundiak sortzen dituen ekimenak ekin-tzailtza sustatzeko?

Arabar lurraldean ez dugu aldaketa handirik sumatu testuinguru honetan, izan ere, enpresa sektoreak datu egonkorak izaten jarraitzen du; gainera, 2011n %34,4ko hazkundera izan dugu, oso positiboa. Era berean, inportazioetan ere goranzko joera izan dugu, esportazioetan izandako igoera baino txikiagoa izan arren.

Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzan sustatzen ditugun plan edo ekimenen artean AUSARTU da esanguratsuenetarikoa, Araban sortzen diren enpresa berriak bultzatzeko eratu den zerbitzua edo programa, alegia. Ekimen horri esker, ETEen hazkun-

dea ere posiblea izan da, izan ere, 60 enpresa izan dira onuradunak. Diru-laguntza 20.000 eurokoa da gehienez enpresa bakoitzeko, eta, gehienez, aurrekontuaren %50 diru laguntzen du.

2011. urtearen hasieran, AFAn 4,8 milioi euro inbertitu zituen enpresa berrien sorkuntzarako; nola garatu da inbertsio hori orain arte?

Gure atal edo sailetik beti apustu argia egin dugu berrikuntzaren alde; Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzan SAIATU egitasmoa bultzatu dugu. Kitaldi honetan, 246 proiektutan parte hartu dugu diru-laguntzak eskainiz, eta guztira 164 enpresa onuradun izan dira, joan den urtean baino hamabi enpresa gehiago.

Horretaz gainera, berrikuntza sustatzen dugu bes-

te ildo batzuetatik; gure ekimenak ez ezik, SEA, Merkataritza Ganbera edo Zentro Teknologikoekin ere aritzen gara lankidetzan.

Nazioartekotasunari begira, enpresa arabarrak ikusgai dira beste herriade batzuetan? Zein da Aldundiaren lana zentzu honetan?

Arabar enpresak esfortzu izugurriak egiten ari dira nazioartean beraien presentzia nabaria izan dadin. Aipatutako SAIATU egitasmoak ere nazioartekotasunaren inguruko kontuak sustatzen ditu; gauzak horrela, aurten, arlo honetan 41 proiektuk jaso dute diru-laguntza, beste herrialde batzuetan ikusgai izateko eta hedatzeko aukera emateko.

Bestalde, gure enpresak nazioarteko azoketan izaten dira, harreman enpresarialak izateko eta esportazioen sektorean hazten jarraitze-

ko. Bereziki, gure enpresak bi merkatutan zentratu dira, frantziarrear eta alemaniarrear, hain zuzen ere. Era berean, aipagarria da BRIC (Brasil, Errusia, Txina eta India) herrialdeetan izaten duten gero eta presentzia handiagoa.

Bestalde, Arabako hiriburuak Europako Hiriburu Berdea izateak eraginik al du lurraldeko enpresa berriengan?

Ingurumenari buruzko ekin-tzek eta eremu horretan garatu ditugun hainbat programek sariak jaso dituzte izendapen honekin. 2012ko Hiriburu Berdea oso garrantzitsua da Gasteizentzat, baina Araban ere eragina izango du, eta, jakina, baita bertako enpresetan ere.

Gure aburuz, honek enpresa berrien sorkuntza ekarriko du, eta, horrekin batera, hainbat lanpostu

gehiago sortuko dira. Gainera, AFAn betidanik ingurumenaren aldeko apustua egin dugu, iraunkortasuna aldarrikatuz, eta hemendik aurrera ere filosofia berarekin jarraituko dugu, oinarrizkoa baita gure garapen ekonomikorako.

“Aurtengo abuztuan 14 EEE izan ziren guztira Arabako lurralde historikoan”

Enplegu Erregulazio Espedientei begira, asko hedatu den joera izan da azken hilabeteetan; zenbateko pisua izan dute arabar ekonomian?

2011ko irailean emandako emaitzen arabera, Araban izandako Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) kopuruak behera egin du, eta, aldi berean, EEE hauekin lotuta dauden beharginen kopurua ere jaitsi egin da.

Hori dela eta, azkeneko datuak aztertuz, esan daiteke lan-merkatua pixkanaka hobetuz doala eta bere egitura egonkortzen ari dela. Zehazki, 2011ko abuztuan 14 espediente izan ziren guztira, 335 langilerengan eragina izan zutenak.

*Noticias de Bizkaia***Deia**

EGIA BILUZIK

DEIAN guzti-guztia erakusten dizugu.
Informazioa bere kolore guztiekin.
Aktualitatea gardenki eta konplexurik
gabe. Gaur errealitatea nolakoa den
erakusteko garaia delako.

ERREPORTAJEA

Krisialdi ekonomikoaren ondorioz kontsumo arloan berrikuntzak gauzatu dira

Euskadiko bezeroek gero eta kexa gehiago aurkeztu dituzte azken urteetan, krisia dela eta, baina erakunde publikoko erantzuna ez da espero bezain azkarra eta eraginkorra izan. Eusko Jaurlaritza, bere aldetik, Kontsumoko Euskal Institutua, Kontsumobide, irailaren 1ean abian jarri du Euskal Autonomi Erkidegoko biztanleentzat. Gune berri hau Osasun eta Kontsumo sailari atxikita dago eta oraindik lehenengo emaitzak ez dira ezagutzera eman

Kontsumoko Euskal Institutu berria Kontsumobidek irailaren 1ean bere atek ireki zituen. Bere eskumenen eta helburuen artean badaude, bitartekaritza eta arbitrajea; erreklamazioei erantzutea; eta merkaturia eta informazioa kontrolatzea. Eusko Jaurlaritzako bezeroaren arretarako orain arte izan duten zerbitzua ez da "lagungarria" izan kontsumitzaile askorentzat, hauek ez daude ados zerbitzu publiko honek azken urteetan jarraitu duen bidearekin, "sarritan aurkeztutako kexak albo batera uzten dituzte, eta erantzuna ez da azkarra eta argia izaten", salatu du gurekin harremanetan jarri den bezero batek.



Kontsumitzaile askok ez daude ados erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuekin

diren izapidetze-sistemak hobetzen saiatuko da zerbitzu berria. Alde horretatik, Kontsumobideren lehen lana izan da lau telefonia-operadore nagusiekin hitzarmen bat sinatzea, posta elektronikoen bidez egindako erreklamazio-izapideak arintzeko.

Lan-hitzarmenak

Institutuaren beste helburuetako bat da enpresen eta profesionalen erakundeekin lankidetzak hitzarmenak sinatzea, jardunbide egokien esparruan aurrera egiteko. Halaber, bitartekaritza eta arbitraje jarduerak sustatuko dira aldean artean hitzarmenak lortzeko, eta KIUBekin eta Kontsumitzaileen Elkar-

teekin dauden harremanak koordinatuko ditu.

Enprekin eta profesionalen harreman estua izatea positiboa izan dai-

teke, baina era berean negatiboa suerta daiteke, "hitzarmenak enprekin sinatzea kontsumitzaileen kontra ipini daitekeen

faktorea da, interes amankomunak defendatu ditza-kete, hori ez da onuragarria izango kontsumitzaile edo bezero taldearentzat", gaineratu du partikularrak.

Bestalde, Eguzki Talde Ekologista interes hauen aurka ere azaldu da, "zenbait pertsona eta erakunde baidan trukea bezalako ekintzek gero eta indar handiagoa daukate, elkar truke hauek gainera ez dira produktuetara mugatzen eta zerbitzuak ere sistema honen parte dira".

Erosketarik gabeko eguna

Garai honetan, krisialdian murgilduta, "aldaketa" hitza da gehien entzuten dena, baina Eguzki Taldearen arabera, momentu hauek bi gauza izan dai-

2012an lehen aurrekontua izango du Kontsumobidek, 7.068.000 eurokoa

Bestalde, kontsumo sailaren zati garrantzitsua euskal bezero eta kontsumitzaileen arretarako erabiltzen da, gehienbat erreklamazioekin lotura duten kontuak.

Ildo berari jarraituz, bide telematikoetik egiten



Azaroaren 25ean ekologista taldeek Erosketarik Gabeko Eguna ospatu zuten

ERREPORTAJEA

Euskal gazteak eta kontsumo arduratsua

Euskal gazteen %42k modu arduratsuan kontsumitzen du, Gazteen Euskal Behatokiak egin duen azterketaren arabera. Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak, Antonio Riverak, eta Gazteriaren zuzendariak, Natxo Rodriguezek, aurkeztu dute aipatutako azterketa. Kontsumo arduratsua zabalduago dago Bizkaian, adinarekin gero eta handiagoa da eta emakumeak zertxobait arduratsuagoak dira.

Kontsumo arduratsuen kontzeptua, benetako beharrei egokitzen diren kontsumo ohiturekin lotuta dago, eta horiek ingurumena zaintzen eta gizarte berdintasuna lortzen laguntzen dute. Arau horiekin, kontsumo arduratsuen indizea kalkulatzeko

ondokoak baloratuko dira: gazteen kontsumoaren arrazionaltasuna, étika, iraunkortasuna eta aukerako praktikak.

Bizkaiko gazteak, arduratsuenak

Azterketaren arabera, erdi-goiko kontsumo arduratsua egiten duten gazteen ehunekoak %42 da.

Kontsumo arduratsuari dagokionez, erdi eta goi mailan dauden pertsonak taldekatuz gero, Lurralde Historikoen arabera ezberdintasun esanguratsuak ikusi dira. Bizkaiko gazteak %47 dira,

Gipuzkoan, berriz, %38 dira eta Araban %34k osatuko du talde hori. Halaber, zaharragoak badira, goi-erdi kontsumo arduratsuen maila handiagoa izango da.

Modu arrazionalen kontsumitu

Kontsumo arrazionalak esan nahi du produktu edo zerbitzu bat modu kontzientean eta hausnarketaren ondorioz eskuratzen dela. Ondokoak gain

hartzen ditu: erosketa aurreko unea jasoko dugun arreta.

Gazte kopuru handiak egiten du hori guztia: erosi baino lehen, produktua ondo dagoela egiaztatuko dute eta arazorik badute erreklamatu egingo dute.

Gainera, %72k dio eskaintzez eta beherapenez baliatzen dela, %71k faktura egiaztatzen du, %68k aldeztatik aurretik pentsatu du zer erosi duen, %61k itzulitako dirua ondo dagoela egiaztatzen du eta %51k garantia egiaztatzen du.

Gizonen kontsumo arrazionalaren indizea emakumeena baino handiagoa da (%63 eta %53, hurrenez hurren), eta handiagoa da adin zaharragoa dutenen artean. Arabar eta bizkaitar gazteek (biek %61 dute), gipuzkoar gazteek (%52) baino modu arrazionalagoan kontsumitzen dute.

Euskal gazteen %42k modu arduratsuan kontsumitzen du



Kontsumoaren inguruko erreklamazioak igo egin dira krisialdiarekin batera

tezke aldi berean, abiapuntu bat eta helmuga.

Zenbait adituek diote momentu hauetan aldaketei aurre egiteko gure eginbeharrak, gaitasunak, jarrerak aldatzeko joera daukagula. Izan ere, moldatzeko gaitasuna giza espeziearen berezko ezaugarria da baina, ez da beharrezkoa zerbait berria asmatzea, "askotan kontsumismoa eta ez gizartea elikatzeke eredu kapitalistek baztertutako portaera zaharrak berreskuratzea-

kontsumo arduratsua aldarrikatzeko. "Ez gaitezen nahastu, lehen mailako beharrak, gizartean bizi garen animaliak garenez gero, gizartean bizitzeko ezinbestekoak zaizkigun horiek dira. Bigarren mailakoak berriz, alde batera utzi ditzakegu, baina hauek lehen mailakoak bilakatu daitezke gizarte eredu kapitalista hauek zabaltzen aditua delako", gaineratu dute Eguzki taldekoek.

Euskal kontsumitzailearen profila

"EAEko bezeroek ez dute profil finko edo egonkor bat, oso heterogeneo baita", esan du Kontsumobideko zuzendariak. Gainera, generoari begira, emakume eta gizonen arteko portzentaia oso antzekoa erreklamazioak egiteko orduan eta aholkuak eskatzerakoan.

Aitzitik, atal batzuetan gazteriaren presentzia nabariagoa da, telefonía, bidaia edo teknologí berrien sektoreetan, esaterako. Arlo energetikoan, aldiz, erreklamazioak egiten dituztenek ez dira hain gazteak.

Oro har, 2011ko lehenengo sei hilabeteetan kontsumitzaileek egindako erreklamazioek gora egin dute, joan den urteko epe berarekin alderatuz.

"Bigarren mailako beharrak alde batera utzi behar ditugu", aldarrikatu dute Eguzki taldekoek

rekin nahiko izaten da", azaldu du ekologisten taldeko bozeramaileak.

Ilido berean, azaroaren 25ean erosketarik gabeko eguna ospatu zen, eta hainbat talde eta erakunde batu ziren kapitalismoaren kontra egiteko eta



Gazteen %72k dio eskaintzez eta beherapenez baliatzen dela

ELKARRIZKETA

JOSÉ PEDRO GONZÁLEZ

La Naval Enpresa Batzordeko presidentea

“Enpresak laugarren EEE aurkeztu du Batzordearen desadostasunarekin”



Sestaoko La Naval ontziola Euskadiko enpresa nagusien artean dago, baina gaur egungo egoerak eragina izan du sektorearengan, eta La Navalen hainbat Enplegu Erregulazioko Espediente onartu dituzte. Horren ostean, langile talde handi bat kaleratua izan da. Egoera aztertzeke eta aurreikuspenak ezagutzeko, José Pedro Gonzálezekin elkartu gara, La Navaleko Enpresa Batzordeko presidentearekin, hain zuzen ere

Azken ekitaldi hau gogorra izan da Euskadiko ekonomiarentzat; nolakoa izan da 2011. urtea La Navalen ikuspegitik?

Txarra; Sestaoko ontziola ez da salbuespena izan krisialdi finantzario honetan. Hain zuzen ere, etendurako hiru Enplegu Erregulazioko Espediente (EEE) daramatzagu, eta beste bat iraungitzekoa, 119 beharginengan eragina izan duena. Orain laugarren baten erantzunaren zain gaude, etendurakoa izan daitekeena.

Oso gogorra da enpresarentzat garai latz honetan enplegurik sortu ezin izatea, Bilboko ezker aldean ez ezik, Euskadin ere trakzio-enpresa izanik.

Oro har, zein da Sestaoko enpresaren lan-karga une honetan?

Momentu honetan ontzi bakarra daukagu gradan; abuztuan uretaratuko da eta 2012an entregatuko dugu.

Zein da enpresaren egungo egoera? Zein eragin izan dute murrizketek eta EEEek?

Esan dugun moduan, laugarren EEEren emaitzaren zain gaude; kasu honetan, Enpresa Batzordearen desadostasunarekin aurkeztu



Une honetako lan-karga urria da; ontzi bakarra dute gradan

da. Gure aburuz, ez da momentu aproposa beste EEE bat ezartzeko.

Gainera, Sestaoko ontziola ez da arazoak dituen ontziola bakarra, izan ere, sektorean lan egiten duten gainerako enpresak, Estatu mailan, antzeko egoeran daude, Bruselan Tax Lease sistema finantzarioa ezarri zutenetik. Beraz, arazo hau ez da soilik politikoa; aktoreek ados jarri behar dute epe laburrean.

Zure aburuz, datorren urtean La Navalek aldaketa positiboa eta goranzkoa izan dezake?

Sistema finantzarioa da eragozpen nagusia. Europako Batzordeak sistema berria gainditi behar du, Frantziaren dutenaren an-

tzekoa, bere garaian Europak jada ezarri zuena.

Hortaz, arazo finantzarioak konpondu ostean, gure arazoa epe laburrean gaindituko genuke, eta

“Jaurlaritzak baldintzak bete behar ditu akziodunen taldean sartu aurretik”, dio Gonzálezek

kontratazio berriak egitea posiblea izango litzateke; horrek gorakada ekarriko luke ontzien eraikuntzan.

Eusko Jaurlaritza enpresako akziodun izateari dagokionez, zein da zuen Batzordearen jarrera?

Eusko Jaurlaritzak La Navaleko akzioetan parte hartu nahi du SOCADE partizipazio-elkartearen bidez; talde horretan Euskadiko hiru aldundiak daude. Gure ustez, beraien parte-hartzeak egonkortasuna emango lioke enpresari; modu horretan, entitate finantzarioei eta hurrengo bezeroei ere bermea emango litzaieke.

Dena dela, Jaurlaritzaren sarrerak baldintza batzuk bete beharko ditu, kideen artean ez da etekinen banaketarik egingo, Plan Estrategiko bat garatu beharko da, Kapitala handitu eta EJren presentzia gutxiengoa izan-

go da, eta, gainera, denboran mugatua.

Era berean, hainbat bilera egin ondoren, zein da negoziazioaren egungo egoera?

Eusko Jaurlaritzak argi eta garbi adierazi du eransketaren horretan parte hartzeko prest dagoela. Baina sarre ezin da edozein modutan egin; kideen %100ek ados egon behar du, hau da, kide guztiek baiezkoa sinatu behar dute, EJ akziodunen taldean sartu ahal izateko. Hori dela eta, erabakia Akziodunen Bilkura Nagusian onartu beharko da.

Nola baloratzen duzue erakunde publikoen launtza edo bermea? Zelaiko erantzuna izan du politika-klaseak?

Bizkaiko Foru Aldundia-ekin batzar bakarra izan dugu; duela asko izan zen eta ez genuen SOCADE sartzearen inguruan eztabai-datu. Hala ere, uste dugu beraien erantzuna baikorra izango dela; akziodunen artean egon nahi izango dute, batez ere Bizkaiko Aldundia SOCADEren zati delako.

Jaurlaritzari dagokionez, beraien jarrera positiboki baloratzen dugu, era pribatuan nahiz publikoan enpresaren parte izateko duten grina edo asmoa jakinarazi dutelako.

ERREPORTAJEA

Tabakoaren aurkako legeak iritzi kontrajarriak piztu ditu urtebetean

EAEn, tabakoa erretzeko ohitura gutxiagotu da apur bat, eta biztanleen gehiengoa ados dago jatetxeetan, tabernetan eta frontoietan erretzeko debekuarekin. Aitzitik, ostalaritzarekin harremana duten langile edo erakundeek tabakoaren aurkako legearen kontra segitzen dute, beraien diru-sarrerek behera egin dutela baieztatu dute, eta krisi ekonomikoarekin batera lege honi aurre egitea zaila suertatzen ari dela baieztatu dute

la urte bat pasa da Euskadin tabakoaren aurkako lege berria indarrean sartu zenetik. Ondorioen gaineko iritziak anitzak dira; kaltetuaren ikuspuntuaren arabera, egoera hobetu egin da, eta beste batzuentzat, aldiz, txarrera egin du.

Urte hasieran, Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak adierazi zuen helburu nagusia zela Euskadi "Europako tabakorik gabeko gune berria" kokatzea. "Horrela, ez-erretzaileak ez dira behartuta egongo erretzaileen kea arnastera leku publiko itxietan, eta haien osasuna babestu egingo da, bereziki ostalaritzako langileena eta adingabeena", gaineratu zuen Zabaletak lege berria indarrean jarri zen unean.

2011ko lehenengo lauhilekoan, ostalaritzazentroen %73k galerak izan ditu


Legebiltzarrean eztabaida zabaldu zenean, sailburuak argi utzi zuen legearen xedea "konbentzitzea" zela, "ez inposatzea". Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak bidali zuen mezua osasun kontua zela adierazi zuen.

Eragin ekonomikoak

Honek guztiak eragin ekonomikoa izan du, edo, behintzat, hori adierazi dute behin baino gehiagotan ostalaritza sektorean ari diren langileek.



Tabakoaren aurkako legea 2011ko urtarrilean jarri zen indarrean EAEn



Angel Gago, Bizkaiko Ostalaritza Elkarteko idazkari nagusia

Bizkaiko Ostalaritza Elkarteko idazkari nagusiak, Angel Gagok, Eusko Jaurlaritzak hitzartutako legearen aurkako jarrera argia hartu du. Gagok ostalariak proposatutako irtenbidea gogorarazi du; "guk planteatutako irtenbideari jaramonik ez egiteak kalte handia eragingo du ostalaritzaren sektorean", azaldu du Federazioko idazkari nagusiak.

Alabaina, taberna eta jatetxeek erretzaileentzako gune berezia izatea ere defendatu dute. Horrek, batetik, bat-bateko debekuak ekarriko lukeen kolpea arinduko luke, eta, bestetik, 2005eko Espainiako Tabakoaren Legea onartu zenetik erretzaileentzako guneak egokitzeko egindako inbertsioek zentzua izango lukete.

Hortaz, erretzaileen guneak egiteko aukera edo asmoa ez duten ostalariei bi urteko epea emateko eskatu dute.

Galerak ostalaritzan

Illo berari jarraituz, ostalariak lehenengo hilabeteetan izandako galerak kalkulatu dute. Estatu mailan, 2011ko lehenengo hilabeteari dagokionez, %20-25 inguruko galerak salatu dituzte. Euskadira begira, Bizkaiaren kasuan, aurtengo lehenengo erdialdea ez dela oparoa izan baieztatu dute emaitzek.

Bizkaiko lurralde historikoan, 2011ko lehenengo lauhilabetekoan, lokal edo ostalaritzazentroen %73,30ek galerak izan ditu aurreko urtearekin alderatuz. Ostalarien iritziari erreparatuz, horietariko %51k krisialdi ekonomikoari egozten dio errua; %47k, aldiz, tabakoaren aurkako legearen ondorioak direla ziurtatzen du; gainerako %2k, berriz, bestelako arrazoiengatik dela esan du.


Euskaldunak baikor azaldu dira tabakoaren aurkako legea ezartzearekin

2010. urtetik, tabakoa erretzen duten pertsonen portzentajea bi puntu txikitu da, hain zuzen ere, %28tik %26ra 2011n, 18 urtetik gorako biztanleen artean, egunero edo noizean behin erretzen dutenen portzentajea.

Elkarrizketatutako pertsonen erdiak baino gehiagok, %54k, "erretzea jendeak duen eskubidea dela eta ez dagoela zertan mugatu" uste badu ere, herritarren gehiengo zabalak, zehazki %93k, "toki publikoetan, erretzen ez duten pertsonen eskubideak errespetatu behar direla" uste du.

Bezero kopuruaren murrizketa

Toki publiko itxietan erretzeko debekua aldatzeak eragindako ondorioei dagokienez, elkarrizketatutako pertsonen %42k uste du ostaluetan bezero kopurua asko edo nahikoa gutxitu dela, eta, aldiz, %46k kontrako dio, ostaluetako bezeroak gutxi edo batere ez direla gutxitu. Bestalde, %46k uste du, debeku horri esker, zenbait lagunek erretzeari utzi diotela; %35ek dio lagun gutxiago direla erretzen hasten direnak, eta %84ren ustez, orain, erretzen ez dutenek eragozpen gutxiago sufritzen dituzte.



Biztanleen %81ek positibotzat jo du EAEn tabakoaren aurkako Legea ezartzea. Biztanleen %23k uste du oso positiboa izan dela tabakoaren aurkako Legea EAEn ezartzea, %58k uste du positiboa izan dela, %11k uste du negatiboa izan dela eta %3k oso negatiboa izan dela; azkenik, %5ek esan du ez dakiela edo ez du erantzun.

TEKNOLOGIA


Kindle

Nagusiki liburuak irakurtzeko baliagarria den tresna da Kindle aparatua. Baina bere erabilgarritasun bakarra ez da liburu funtzioa izatea, Kindle-arekin internetan nabigatu dezakegu, edota edozein informazioa gorde dezakegu.

Kindle marka edo formatua Amazon etxeak sortu du, eta bere tinta elektronikoa erabiltzen du eskuratzeko. Erabilterraza ez ezik, dinamikoa eta arina ere bada. Amazonen webgunean salgai dira, beraz prezio dolarretan adierazten dute.

Kindle arrunta

Wi-Fi
6 hazbete



60 € inguru

Kindle Touch 3G

Free 3G
Wi-Fi



110 € inguru

Kindle Fire

Full Color
Multi-Touch Display
Wi-Fi



150 € inguru

<http://www.amazon.com>

ARDOAK



Merlot

Mundu osoan ezaguna den mahats mota da Merlot, Bordeleko eskualdean oinarria duena. Dena dela, Espainian aspalditik zabaldu den mahatsa da, eta, beronekin, ardo paregabeak egin dira, garraztasun baxuarekin eta tanino eztiarekin.

Profesionalek diotenez, ardo fina eta bikaina da, gorputz apainarekin eta fruta zaporea ere baduena, batez ere, masusta, okaran eta ginga gustukoa.

Merlot ardoa bestelako eikagaiekin elkartzeko orduan, oso aldakorra dela esan dezakegu, okelatik lekara, edozein jakirekin lagundu dezakegu.

FINCA DEL MAR



JATORRI-IZENA:
Utiel-requena

UPELTEGIA: Vicente
García Pla, S.A.

PREZIOA: 4€

VIÑAS DEL VERO



JATORRI-IZENA:
Somontano

UPELTEGIA:
Viñas del Vero, S.A.

PREZIOA:
8,50€

MAS COMTAL PETREA



JATORRI-IZENA:
Penedés

UPELTEGIA:
Mas Comtal

PREZIOA:
25€

JATETXEA

Sarbil jatetxea



Eguneko menua

Onddoen nahaskia
Oltzako zainzuriak
Bildots saiheskia
Orio erako legatza
Mojitozko sorbetea



Toki desberdin honetan, zurezko arkitekturak, begietarako ikuskizunak eta gastronomiak bat egiten dute giro bero eta dibertigarria sortzeko.

Etxaurri dago, Iruñetik 14 kilometrotara, Arga ibaiaren gaineko hegi batean. Nabarmena da haren itxura airetikoa.

Sukaldaritzaren plater klasiko eta sasoikoak, idi txuleta, bildots saiheskiak, zerrikume errea, txapiroak eta bakailua, besteak beste.

Edukiera 52 lagunentzako da, eta sasoian terraza estiloko zerbitzua jate-txearen azpian. Mojitoak eta Gin Tonic etxeko berezitasunen artean daude.

Harremanetarako datuak:

Ikerrea 8, 31174 - Etxauri
Tel.: 948 32 94 87
<http://sarbiljatetxea.com>



AI SIALDIA

Estresari aurre egiteko hileko proposamena

Gabon zahar gaueko kotilioiak 2012

Askok Gabonak familiarekin eta lagunekin denbora gehiago pasatzeko aitzakia bezala ikusten dute; horregatik, taberna, hotel edota merkataritza-gune ugari euren eskaintzak aldatzen edo moldatzen dituzte garai honetan, bezero eta kontsumitzaileen nahiak edo gustuak asetzeko. Festa edo gala hauetako bat Gabon zahar gaueko kotilioia da.

Jai hauetan sartzeko, diru kopuru bat ordaintzen da, eta, ondoren, ordaindutako sarrera horren truke honakoak eskura ditza-kegu: edariak, gosaria, zozketetan parte hartzeko aukera edo musika, besteak beste. Mota askotako kotilioiak daude, gazteentzat zein nagusientzat, eta prezioa 40 eta 250 euro artekoak izan daiteke (preziorik altuenak hoteletan izan ohi dira eta afaria barne izaten dute).

Aurtengo Gabon zahar gauean mota honetako festa batean parte hartu nahi baduzue, kontsultatu hurrengo tokietan (soilik adibideak dira, beste asko ere badaude):

- GIPUZKOAN: Cafe Irun, Bataplán, Hotel Barceló Costa Vasca
- BIZKAIAN: RockStar Bilbao, Sala Vip, Gran Hotel Domine Bilbao
- ARABAN: Hotel Barceló, The Group aretoa, Hotel General Alava



LAN ESKAINTZAK

ONDAREAREN ZAINZA ETA BERRRESKURAPENERAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (2011KO ENPLEGU SUSTAPENA)
Landa eta Hiriguneko ondarea mantendu eta lehengoratzeko lanak. Ezinbesteko baldintzak. Zuzenbidean lizentziatua izatea. Konkretuki zuzenbide zibil eta administratiboan ezagutzak izatea. EGA edo baliokidea, gidatzeko baimena B mota, informatika ezagutzak. Eskaintzein da: 6 hilabeteko kontratua, goizez, 2318,57 soldata gordina.

TURISMO TEKNIKARIA-KIROL EKINTZEKO DINAMIZATZAILEA
Turismo aktibo eta aisialdia uztartuko duen proiektua bultzatzeko teknikari lanak egingo lituzke, Oñatiko turismoko plan estrategikoa oinarri hartuta. Sei hilabeteko kontratua. Ordutegia: 7,30-15,00. Hileko soldata gordina 2.193,08€. Hasteko aurreikusitako data 2011-12-15 Ezinbesteko baldintzak: Oñatin erroldatua egotea //Unibertsitateko erdi mailako ikasketak izatea, edo gutxienez FP III // Ega mailako euskara ezagutzak.

INGURUMENEN IKUSKARITZARAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
Enpresen egoera legala zenden jakitea. Jardueraren ondorioz sortzen dituzten hondakinen kudeaketaren berri izatea. Enpresen kokapena zehatza emango digun udal mapa osatzea. Aurreko bi urteetan aztertutako poligoetan izan diren aldatketak jasotzea. Ezinbesteko baldintzak: kimika, biologia edo ingurumen zientzietan lizentziaduna, EGA edo baliokidea, Gidatzeko baimena B. Kontratua 6 hilabetekoa, goizez, 2.318,57 soldata gordina.

SUKALDARIA
Sukaldaria. Sukaldaritzan formakuntza edukitzea eta urte batzuetako esperientzia.

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

EKONOMIA HIZTEGIA

EUSKARA / GAZTELANIA / INGELESA

- IZAPIDE = TRÁMITE = PROCEDURE
- TREBAKUNTZA = HABILITACIÓN = FITTING OUT
- LEGE GINTZALDI = LEGISLATURA = LEGISLATURE
- TITULARTASUN = TITULARIDAD = OWNERSHIP
- ENPLEGATU = EMPLEAR = TO EMPLOY
- ABIATU = IMPULSAR = TO DRIVE
- IRIZPIDE = CRITERIO = OPINION
- LURZORU = SUELO = FLOOR
- ERAIKUNTZA = CONSTRUCCIÓN = BUILDING
- EHUNKA = CIENTOS = HUNDRED
- ONTZIOLA = ASTILLERO = SHIPYARD
- TOPAKETA = ENCUENTRO = MEETING
- LEHENTASUN = PRIORIDAD = PRIORITY
- ESLEITU = ADJUDICAR = TO AWARD
- BIDEGABE = INJUSTO = UNFAIR

SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

5	6		8				2
	3	2				9	8
		9		7	2		
		8	6				
				8		7	
				9			1
				2	3		6
4							
		6		4			3

ERANTZUNAK

Zenbat denbora eman duzu sudokua ebazteko? Hona hemen erantzunak.



2	9	1	7	9	2	5	0	0
2	0	8	0	0	1	0	0	7
9	7	9	0	2	0	0	0	1
7	1	9	1	0	1	0	0	9
0	0	1	0	2	1	1	0	0
0	2	8	1	7	0	0	4	5
1	0	9	0	2	5	0	1	2
0	0	0	0	1	7	0	0	4
0	4	0	0	9	1	0	0	9

Enpresa albisteak eta ekonomiaren bilakaera interesatzen al zaizkizu? Har ezazu parte ekonomiaren eremuko euskarazko lehen elkargo digitalean. Bultza dezagun euskara!



BISITA GAITZAZU GURE BLOGEAN!
ekonomiarenkz.wordpress.com

Albiste berriak egunero eta adituen iritziak



ADITUAREN IRITZIA



Agustín Garmendia

Norbolsako zuzendari nagusia

Espainiako merkatu finantzarioa

Espainiak interes tasa oso altuak ordainduko ditu hementik aurrera, eta aldaketa nabari hori "kezkarria" dela esan du Garmendiak. Zorra handituz ari den neurrian, ordaintzeko aukera gero eta estuagoa izaten ari da, baina Norbolsako ordezkariaren aburuz, arazoa ez da hain zehatza: "hedatuta dago, eta eurogune osoari eragiten dio".

Ildo berari jarraituz, Agustín Garmendiak uste du errua ez dela Espainiarena, baizik eta Europar Batasuneko kudeaketa eta neurrien faltarena; "Europak jarraitzen dituen urratsak ez dira nahikoak zor publikoa bertan behera uzteko", gaineratu du Norbolsako zuzendari nagusiak.

%7ko interesa

Estatu espainiarraren interes tasari dagokionez, Garmendiak dio %7ko interes izatea zifra altua dela, "baina biztanleek ez dute zertan larritu, Estatuko batez bestekoa %4koa baita, hori errealitatea da; dena dela, goranzko joerak jarraitzen badu, kezkatzeko aitzakia izango dugu", azaldu du adituak.

Europari begira, Garmendiaren ustez, Italiaren edo Espainiaren erreskatea ez da bideragarria; "Greziako egoera erabat desberdina da; kasu honetan, hurrengo erreskatea eurogunearena izango liteke, baina ez Estatu zehatz batena".

Mariña Martínez Malvar

Saxo Bankeko kontuetako aholkularia



Bankuak, moneta eta burtsa

"Egun ez dago konfiantzarik merkatuan, baina arrazoi nagusia bankuen arteko mesfidantza da; haien artean dagoen konfiantza gabezia nabaria da, eta hori arrisku-sarian nabaritzen den tirabira da", argitu du Mariña Martínezek.

Saxo Bankeko aholkulariak bankuen jarrera kritikatu du; "ziurrenik, haien egoera publikoki esaten dutena baino txarragoa da; gardentasunak ezinbestekoa izan behar du une honetan, horrela kudeaketak eta biztanleen ahalmena eraginkorrak izango lirateke-eta".

Euroaren eta dolarraren arteko liskarra

"Nahiz eta askok kontrakoa pentsatu, oraindik existitu

egiten da euroaren eta dolarraren arteko guda pertsonala; AEBek, zor publikoari dagokionez, arazo handia dute. Japonian gertatzen den bezala, AEB zor publiko gehien metatzen duten herrialdeen artean dago, baina, gerora, erreakzio botere handia ere badu eta kontuan hartu behar dugu", azaldu du Martínezek.

Burtsari begira, adituak gaineratu du: "kaleetan odola ikusten duzunean, erosi egin dezakezu". Horrekin esan nahi du, egoera ekonomikoa kolokan dagoenean, edo aldaketa ekonomiko eta soziala heltzearekin dagoenean, komenigarria izan daitekeela burtsan inbertitzea. "Sektore finantzarioa, industrial eta materialekoa dira proposenak inbertitzeko", aholkatu du Martínezek.

RUTA selecta

"en Ruta Selecta lo único y realmente importante eres tú"

Ruta Selecta es una tienda online especializada en vinos especializada en vinos, con unos descuentos de hasta un **70 %** sobre los precios de las grandes superficies y vinotecas.

Si quiere sorprender a su familia y amigos, regale una **CESTA DE NAVIDAD**

A los 10 primeros pedidos de este mes de diciembre que superen los 150 euros de compra, siempre que hagan su pedido a través de la página web (www.rutaselecta.com) y se identifiquen como "FUNPUBLI", se les obsequiará con un viaje a La Rioja GRATIS para conocer "Bodegas LAGUNILLA" en Cenicero, viaje, curso de cata y comida incluidos.

VIÑA ARDANZA RESERVA
15,79 € - 5% DTO
15,00 €
IVA Incluido

ACEITE OLIVA VIRGEN EXTRA 100% PICUAL
Botella 500 ML.
2,74 € - 5% DTO
2,60 € IVA Incluido

Ejemplos internet:

Se pueden aprovechar del descuento del 5% por el hecho de ser lector de Función Pública, para ello es necesario grabar en el apartado colectivo "FUNPUBLI"

www.rutaselecta.com